2020IKIE0001

ESKORIATZAKO UDALERRIAN BIDEETAKO SASTRAKAK KENTZEKO, AREKAK GARBITZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO BALDINTZA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN ORRIA PROZEDURA IREKI BIDEZ ETA AURRETIAZ IZAPIDETZAREKIN.

I.- KONTRATUAREN HELBURUA ETA ALDERDI OROKORRAK

1. BALDINTZA.- Kontratuaren helburua eta beharra.

1.1.- Kontratu honen helburua da Eskoriatzako udalerrian bideetako sastrakak kentzeko, arekak garbitzeko zerbitzua ematea espedientean jasotako baldintza teknikoen agirian adierazitako ezaugarriekin. Baldintza teknikoen agiri horrek kontratu izaera izango du.

CPV-08 kodea: 7731000-0 eta 7731000-1

1.2.- SORTAK: Ez

1.3.- Kontratuaren beharra: Kontratu honekin bete gura den beharra, baldintza agiri honetan jasotzen diren Eskoriatzako udalerriko bideak erabilgarritasun, osasungarritasun eta estetika baldintza onetan mantentzea da.

1.4.- Ondorio guztietarako, baldintza administratibo partikularren agiri honek, baldintza teknikoen agiriak eta horien eranskinek, kontratuko dokumentu izaera izango dute, eta hori horrela izanik, aldeen eskubideak eta betebeharrak arautuko dituzte eta, ados dagoela adierazteko, enpresa esleipendunak sinatu beharko ditu kontratua formalizatzeko ekintzan.

2. BALDINTZA. Kontratuaren erregimen juridikoa, kontratu izaera duten dokumentuak eta hizkuntza baldintzak.

Egin beharreko kontratua zerbitzu kontratu bezala kalifikatzen da Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (aurrerantzean SPKL) 17. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Kontratazio honek administrazio izaera du, eta baldintza orri honetan bereziki aurreikusi gabekoetarako ondorengo arauek arautuko dute:

- Kontratazio publikoari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/24/EE Zuzentaraua, 2004/18/EEa indargabetzen duena.

- Batzordearen 2016ko urtarrilaren 5eko (UE) 2016/7 betearazpen erregelamendua, kontrataziorako agiri europar bakarraren formulario normalizatua ezartzen duena.

- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legea -2017 SPKL-.

- Herri Administrazioetako Kontratazio Erregelamendua onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Erret Dekretua.

Osagarri moduan, zuzenbide administratiboko gainerako arauek aginduko dute, eta horrelakorik ez bada, zuzenbide pribatukoek.

3. BALDINTZA. Kontratazio organoa.

2017 SPKLren bigarren xedapen gehigarriaren arabera, kontratu honetarako kontratu organoa Alkatetza da.

4. BALDINTZA. Esleipena egiteko prozedura.

2017ko SPKLren 159.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratua prozedura ireki sinplifikatu bidez esleituko da, esleipen irizpide bakar bati jarraiki, baldintza orri honetako 14. baldintzan ezarritakoaren arabera.

5. BALDINTZA. Kontratatzailearen profila.

Kontratu-jarduerari buruzko informazioaren gardentasuna eta informazio hori herritarren esku egongo dela ziurtatzeko, bestelako publizitate bideak erabiltzearen kaltetan gabe, Udal honek kontratatzailearen profila du, eta ondorengo orrian araututakoari jarraiki sartu beharko da bertara: www.contratación.euskadi.eus.

6. BALDINTZA. Egikaritze epea.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 29. artikuluan xedatutakoa kontuan harturik, kontratu honek URTEBETEKO iraupena izango du, eta beste 3 urtez luzatu ahal izango da, baina, kontratuak, guztira, ezingo du LAU URTE baino gehiago iraun. Luzapenak urtebetekoak izango dira eta berariaz erabaki beharko ditu kontratazio organoak. Derrigorrezkoak izango dira enpresariarentzat, betiere, kontratua amaitu baino bi hilabete lehenago abisatuz gero eta ez bada gertatzen 2017ko SPKLren 29. artikuluaren 2. idatz-zatiaren azken paragrafoan jasotako egoera.

Aurreko idatz-zatietan ezarritakoa gorabehera, kontratua amaitzerakoan zerbitzua ematen jarraituko dela bermatuko duen kontratu berria oraindik formalizatu gabe egongo balitz esleipen prozedura berrian izandako gertaera aurreikusi ezinezkoengatik kontratazio organoarentzat, eta zerbitzua ez eteteko interes publikoko arrazoiak izan, kontratu hau kontratu berria egikaritzen hasi arte luzatu ahal izango da, gehienez ere bederatzi hilabetez, kontratuaren gainerako baldintzak aldatu gabe, eta betiere, kontratu berriaren lehiaketarako iragarkia gutxienez kontratu honen amaiera data baino hiru hilabete lehenago argitaratu baldin bada.

Kontratuaren helburu diren zerbitzuak gauzatzeko epea HAMABOST EGUNEKOA izango da Udalak eskatzen duenetik kontatzen hasita bideetako sastrakak kentzeko.

Zerbitzurik ematen ez bada epe horretan, kontratistak berandutzeagatiko erantzukizunei aurre egin beharko die, nahiz eta Administrazioak aurretik ez ohartarazi.

7. BALDINTZA. Kontratuari kalkulatutako balioa eta lizitazioaren oinarrizko aurrekontua.

2017ko SPKLren 101.1 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, egin beharreko kontratuari (4 urte) kalkulatutako balioa 50.175,72 eurokoa da (BEZa gabe).

Kontratuaren indarraldiko lehen urteko lizitazioko oinarrizko aurrekontua 12.543,93 € gehi dagokion BEZa da, lizitatzaileek hobetu ahal izango dutena.
Prezio hau ondorengo prezio unitarioetan oinarrituta kalkulatu da: 0,25 €/ml sastrakak kentzea eta 0,33 €/ml garbiketa eta sastrakak kentzea.

Kontratuaren prezioa esleipenekoa izango da, eta ezingo du gainditu Administrazioak ezarritako lizitazio tipoa.

Ondorio guztietarako ulertu beharko da kontratuaren prezioan sartuta daudela kontratatutako zerbitzua normal betetzeko enpresa kontratistak egin beharko dituen gastu zuzen eta zeharkako guztiak, eta baita indarrean dauden xedapenen arabera ezarri ahal diren beste edozein tasa eta udaleko, lurralde historikoko zein estatuko edozein motako zerga eta lizentziak ere.

8. BALDINTZA. Kreditua izatea.

Badago nahikoa aurrekontu- kreditu kontratua betetzeak udalarentzat dakartzan betebeharrei erantzuteko.

Halaber, aurrekontu gaietako organo eskudunak konpromisoa hartzen du hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan behar adina kreditu jartzeko.

9. BALDINTZA. Prezioak berraztertzeko erregimena.

Martxoaren 30eko 2/2015 Legea –Espainiako ekonomiaren desindexazioarena– garatzen duen otsailaren 3ko 55/2017 Errege Dekretuaren 8. artikuluan eta sektore publikoko kontratuen prezioa berraztertzeko baldintzak arautzen dituen SPKLren 103. artikuluan ezarritakoari jarraiki, kontratu honetan ez da aplikagarria aipatutako berrazterketarik.

II- KONTRATAZIOA

10. BALDINTZA. Kontratatzeko gaitasuna eta egiaztatzea.

Kontratu honen esleipenean parte hartu ahal izango dute jarduteko gaitasun osoa duten pertsona fisiko zein juridikoek, espainiarrak edo atzerritarrak, indibidualki edo aldi baterako enpresari-batasuna eratuta, baldin eta kontratatzeko debekuren bat ez badute eta beren kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa egiaztatzen badituzte (edo, hala badagokio, behar bezala sailkatuta baldin badaude).

Gainera, enpresa esleipendunak beraien helburuak edo jarduerak kontratuaren helburuarekin harreman zuzena duten pertsona fisiko edo juridikoak izan beharko dira, eta kontratua behar bezala betetzeko behar besteko baliabide pertsonal eta materialak izan beharko dituzte.
Enpresariek, gainera, kontratu honen gaia den prestazioa edo jarduera burutzeko eska daitekeen gaitasun enpresariala edo profesionala izan beharko dute.

Europako Batasunetik kanpoko enpresek 2017ko SPKLren (EDL 2017/226876) 68. artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

Jarduteko gaitasuna eta kontratatzeko debekurik ez izatea egiaztatzeko Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistro Ofizialean inskribatuta egingo da, SPKLren 159.4.a) artikuluan ezarritakoaren arabera.

11. BALDINTZA. Sailkapena eta kaudimena.

Zerbitzu kontratua denez, SPKLren 77. artikuluaren arabera, kontratu hau egiteko ez da sailkapenik eskatzen.

Enpresaria dagokion kontratuaren objektuaren arabera talde edo azpitalde batean sailkatuta egoteak bere kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa eta kontratatzeko kaudimen teknikoa egiaztatuko du. Kasu horietan, enpresariak bere kaudimena egiaztatu ahal izango du kontratuari dagokion sailkapeneko taldean edo azpitaldean zerbitzu kontratista bezala sailkatuta egonda edo lizitaziorako iragarkian edo prozeduran parte hartzeko gonbidapenean eskatutako, eta kontratu honetako baldintza agirian zehaztutako, kaudimen baldintza zehatzak betetzen dituela egiaztatuta.

- Kontratu honi dagokion sailkapena:

Taldea/k: O azpitaldea/k: 2 Kategoria/k: 1 (A).

- Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta profesionala edo teknikoa: 2017ko SPKLren 86.1 artikuluaren arabera, kontratu baterako kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa, eta baita teknikoa edo profesionala ere, Legearen 87. eta 91. artikuluetan aurreikusitako dokumentuen artean kontratazio organoak zehaztatutakoen bidez egiaztatuko da.

- Akreditazio dokumentala:

<u>Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa:</u> Arrisku profesionalengatik, kontratuak indarraldia duen bitartean, gutxienez, 250.000 euroko estaldura izango duen kalte-ordain asegurua egiaztatzen duen agiria.

<u>Kaudimen teknikoa eta profesionala:</u>

1.- Azken 5 urteetan bideetako sastrakak kendu eta arekak garbitzeko emandako zerbitzuen zerrenda, horiek ondo egin izanaren ziurtagiriekin. Kaudimen tekniko eskakizun hori egiaztatutzat joko da exekuzio handieneko urtean pilatutako urteko zenbatekoa kontratuari kalkulatutako balioaren % 100a edo handiagoa bada, edo urteko bere batez bestekoarena, batez besteko hori kontratuari kalkulatutako balioa baino txikiagoa bada.

2.- Lanak egin edo prestazioak emateko erabiliko diren makinak eta materiala zehaztuko duen aitorpena, horiek egiaztatzeko dokumentazioarekin batera. Makineria eta material hori zerbitzua ondo emateko egokia izan behar da.

3.- Enpresariak, horrela balitz, azpikontratatzeko asmoa duen kontratuaren zatia adieraztea.

Kontratu honetan, 500.000 eurotik beherakoa izateagatik, kontratista enpresa sortu berria denean, horrela joz bost urte baino gutxiago duena, ez da aplikatuko zerbitzu kopuru jakin bat eman izanarena.

Kontratu jakin bat egiteko beharrezko kaudimena egiaztatzeko, enpresaria beste erakunde batzuen kaudimenean eta baliabideetan oinarritu ahal izango da, horiekin dituen loturen izaera juridikoa gorabehera; betiere, egiaztatzen baldin badu kontratua egikaritzeko denboran kaudimen eta baliabide horiek benetan izango dituela, eta horiek utzitako erakundeak ez baldin badu kontratatzeko inolako debekurik.

Baldintza beretan, 2017ko SPKLren 69. artikuluak aipatzen dituen aldi baterako batuketetan parte hartzen duten enpresariek aldi baterako batuketatik kanpoko kaudimen eta baliabidetara jo ahal izango dute.

12. BALDINTZA. Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskripzioa.

2017ko SPKLren 159.4.a) artikuluan ezarritakoaren arabera, prozedura sinplifikatu bidezko lizitaziora aurkezten diren lizitatzaile guztiek Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo, 2017ko SPKLren 96. artikuluko 2. idatz-zatian ezarritakoaren arabera bidezkoa denean, dagokion autonomia erkidegoko erregistro ofizialean izena emanda egon beharko dira eskaintzak aurkezteko azken egunean, betiere, lehia mugatua ez bada.

Horretarako, Kontratazio Mahaiak Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean egiaztatuko du enpresa behar bezala eratuta dagoela, proposamena sinatu duenak ahalorde askietsia duela eskaintza egiteko, kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa duela edo, hala balitz, dagokion sailkapena, eta ez duela kontratatzeko inolako debekurik.

13. BALDINTZA. Proposamenen aurkezpena, era eta edukia.

13.1. Interesdunen proposamenak.

Interesdunen proposamenak lizitazioa arautzen duten baldintza agiri eta dokumentuetara egokitu beharko dira, eta behin proposamenak aurkeztuta, enpresariak inolako baldintzarik gabe onartzen ditu baldintza guztiak, inolako salbuespen edo erreparorik gabe; eta era berean, baimena ematen die kontratazio mahaiari eta organoari Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Orokorrean edo Europako Batasuneko estatu kide bateko eragile ekonomikoen zerrenda ofizialetan jasotako datuak kontsultatzeko.

Proposamenak ezkutukoak izango dira, eta bitartekoak jarriko dira ireki arte izaera hori gorde dezaten bermatzeko.

Lizitatzaile bakoitzak ezingo du proposamen bat baino gehiago aurkeztu.

Era berean, ezingo du beste batzuekin alde baterako batuta inolako proposamenik egin berak banakako proposamenen bat aurkeztu badu edo aldi baterako batuketa bat baino gehiagoko partaide baldin bada.

Arau horiek hausteak berak sinatutako proposamen guztiak ez onartzea ekarriko du.

13.2 Publizitatea.

Kontratuaren lizitazioaren iragarkia nahikoa izango da kontratatzailearen profilean argitaratzea bakarrik: www.eskoriatza.eus

Kontratuaren lizitazioaren deialdiari buruzko informazioa kontratazio organoaren kontratatzailearen profilean eskainiko da, baldintza administratibo partikularren agiria eta dokumentazio osagarria barne.

Eskaintza aurkezteko beharrezko dokumentazio guztia eskuragarri egongo da, bitarteko elektronikoz, iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratzen den egunetik.

13.3 Proposamenak aurkezteko lekua eta epea eta baldintza agiriak nola eskuratu.

Lizitazio hau Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman dagoen Udal honen kontratatzailearen profilean iragarriko da.

Prozedura hau elektronikoki tramitatuko da; beraz, proposamenak, derrigorrez, lizitazio iragarkian eta baldintza agiri honetan esandako erregistroan aurkeztu ahal izango dira bakarrik, plataforma honetan dagoen erregistroan hain zuzen ere: www.contratacion.euskadi.eus

Proposamenak elektronikoki aurkeztu beharko dira aipatutako Plataformaren bidez, 15 egun naturaleko epean aipatutako iragarkia agertzen den biharamunetik kontatzen hasita, azken egunaren 24:00ak arte.

Udal honen kontratatzailearen profilera ondorengo helbidetik sartu ahal izango da: www.eskoriatza.eus. Leku horretan eskuratu ahal izango dira ere baldintza agiriak eta dokumentazio osagarria.

Lizitazio honetan ez dira onartuko aipatutako bitarteko elektronikoetatik kanpo aurkeztutako eskaintzak. Eskaintzak elektronikoki egiteko beharrezko baldintza da Euskadiko Kontratazio Publikorako Plataformako edo Sektore Publikoko Kontratazio Plataformako erabiltzaile erregistratua izatea.

Eskaintza bateko dokumenturen bat ezin bada ondo ikusi, lizitatzaileari jakinaraziko zaio, eta, une horretatik, gehienez ere 24 orduko epea izango du akatsa zuen fitxategiko dokumentua formatu digitalean aurkezteko. Berriz aurkeztutako dokumentu horrek ezingo du inolako aldaketarik izan eskaintzan aurkeztutako originalarekiko. Kontratazio Organoak ikusten badu dokumentuak aldaketarik izan duela, lizitatzailearen eskaintza ez da kontuan hartuko.

Proposamenak administrazio baldintza partikularren agiri honetan jasotakoari egokitu beharko dira, eta horiek aurkezteak esan nahi du lizitatzaileak inolako baldintzarik gabe onartzen dituela baldintza guztiak, inolako salbuespen edo erreserbarik gabe, eta baimena ematen diela Kontratazio Mahai eta Organoari EAEko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan jasotako datuak kontsultatzeko.

Lizitatzaile bakoitzak ezingo du proposamen bat baino gehiago aurkeztu, aldaerak onartzearen kalterik gabe. Era berean, ezingo du beste batzuekin alde baterako batuta inolako proposamenik egin berak banakako proposamenen bat aurkeztu badu, eta ezta aldi baterako batuketa bat baino gehiagoko partaide izan ere. Arau horiek hausteak berak sinatutako proposamen guztiak ez onartzea ekarriko du.

13.4. Lizitatzaileentzako informazioa.

Kontratazio organoak baldintza agiriei eta gainerako dokumentu osagarriei buruz eskatutako informazio gehigarria emango die lizitazioan interesa duten guztiei, beranduenez ere eskaintzak aurkezteko ezarritako epea amaitu baino 6 egun lehenago; baldin eta, gutxienez, eskaintzak aurkezteko epea amaitu baino 12 egun lehenago egin bada eskaria (2017ko SPKLren 138.3 artikulua).

13.5. Konfidentzialtasuna.

Kontratazio organoak ez du lizitatzaileek emandako informaziorik zabalduko, lizitatzaileek informazio hori isilpekotzat jo baldin badute eskaintza aurkezteko unean.

Konfidentzialtasun izaerak, besteak beste, sekretu tekniko edo komertzialei eragiten die, eskaintzen alderdi konfidentzialei eta edukia lehia faltsutzeko erabili daitekeen beste edozein informaziori, bai lizitazio honetan bai hurrengoetan.

Kontratazio organoak eta bere menpeko zerbitzuek isilpekotasunez aritzeko duten betebeharra ezingo da zabaldu esleipendunaren eskaintzaren eduki osoari eta, hala balitz, ezta kontratazio organoak lizitazioan zehar zuzenean edo zeharka sortutako txosten eta dokumentuen eduki osoari ere. Isilpekotasunez aritzeko betebeharra bakarrik zabalpen mugatua duten dokumentuetara hedatu daiteke, eta inolaz ere ez jendearentzat eskuragarri dauden dokumentuetara.

Isilpekotasun betebeharrak ezingo du galarazi egindako kontratuetan isilpekoak ez diren zatiak publikoki zabaltzea, hala nola, kitapena, obra egikaritzeko azken epeak, kontratatu eta azpikontratatutako enpresak eta, edozein modutan ere, eskaintzaren funtsezko zatiak eta kontratuari ondoren egindako aldaketak, betiere, Datu Pertsonalak Babesteko legedian ezarritakoa errespetatuz.

13.6 Proposamenak aurkezteko era.

Lizitatzaileek bi gutun-azal elektroniko aurkeztu behako dituzte, lizitatzaileak edo bere ordezkariak sinatuta eta baldintza honetan horietako bakoitzerako zehaztuko den edukiarekin.

"A" GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA.- KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA.

A) Erantzukizunpeko adierazpena:

2017ko SPKLren 140. eta 141. artikuluetan ezarritakoaren arabera, erantzukizunpeko adierazpena baldintza agiri honetako I. eranskinean jasotako ereduari egokitu beharko da. Eredu hori bat dator betearazpen erregelamenduak (UE) 2016/7 (EDL 2016/9) 2. eranskinean ezarritako kontrataziorako agiri europar bakarraren formulario normalizatuarekin.

Aitorpen hori sinatuta eta dagokion identifikazioarekin egon beharko da, eta bertan, lizitatzaileak honako hauek adierazi beharko ditu:

1. Batetik, sozietatea legez eratua dagoela eta, bere helburu sozialaren arabera, lizitaziora aurkeztu daitekeela, eta, bestetik, aitorpena sinatzen duenak proposamena aurkezteko eta sozietatearen behar besteko ordezkaritza duela.

2. Dagokion sailkapena duela edo baldintza agirian eskatutako kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala duela Europako Kontratazio Agiri Bakarraren formulario normalizatuan ezarritako baldintzen arabera.

3. Kontratatzeko inolako debekurik ez duela berez, eta ezta zabalpenez ere, 2017ko SPKLren 71.3 artikuluaren aplikazioaren ondorioz.

4. Helbide elektroniko bat adieraztea jakinarazpenetarako, 2017ko SPKLren 15. xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera "gaituta" egon beharko dena, Kontratazio organoak jakinarazpenak modu horretan egingo direla erabakitzen duenerako. Egoera hori baldintza administratibo partikularren agirian jaso beharko da.

Era berean, enpresariak beste enpresa batzuen kaudimen eta baliabideetara jotzen duen kasuetan 2017ko SPKLren 75. artikuluaren arabera, horietako bakoitzak ere aurkeztu beharko du erantzukizunpeko adierazpena -kasu horietarako informazio egokia izan beharko duena- 2017ko SPKLren 141. artikuluak aipatzen duen Europako kontratazio agiri bakarraren formulario normalizatuaren arabera.

2017ko SPKLren 75. artikuluko 2. idatz-zatian aipatutako konpromisoa 2017ko SPKLren 140. artikuluko 3. idatz-zatian xedatutakoaren arabera aurkeztu beharko da.

Hainbat enpresari aldi baterako batuketan elkartuta aurkezten diren kasu guztietan, enpresa bakoitzak erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du, kasu horietarako Europako Kontratazio Agiri Bakarraren -EKAB- formularioan eskatutako informazioa jaso beharko duena. Gainera, aldi baterako batuketan parte hartzen duten enpresariek batuketa hori eratzeko hartzen duten konpromisoa ere aurkeztu beharko da, 2017ko SPKLren 69. artikuluaren 3. idatz-zatian eskatutakoaren arabera.

Kontratuarekin zuzenean edo zeharka zerikusia duten gorabehera guztietarako Espainiako edozein ordenako epaitegi eta auzitegien menpekotasuna onartzeko aitorpena aurkeztu beharko dute atzerriko enpresek, beraien nazioko epaitegiei uko egiten dietela garbi adieraziz.

Kontratazio organoak edo mahaiak, aitorpenean jasotakoa indarrean dagoen edo fidagarria den zalantza izanez gero, dokumentu justifikatzaile guztiak edo horietako batzuk aurkezteko eskatu ahal izango diete lizitatzaileei prozedura ondo bideratzeko beharrezkoa izandakoan, eta edozein modutan ere, kontratua esleitu aurretik.

Aurrekoa esanda, hala ere, enpresaria Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Kalifikatuen Erregistro Ofizialean izena emanda dagoenean, edo Europako Batasuneko estatu kide bateko datu basean agertzen denean enpresaren espediente birtual, dokumentu elektronikoen biltegiratze sistema edo aurrekalifikazio sistema bezala, eta horiek doan eskuragarri egon aipatutako organoentzat, ez da beharrezkoa izango leku horietan inskribatutako datuak justifikatzeko dokumenturik edo dokumentu bidezko beste frogarik aurkeztea.

Eskaintzak aurkezteko azken egunean izan beharko dira 2017ko SPKLren 140. artikuluan gaitasunari, kaudimenari eta kontratatzeko debekurik ez izateari buruz aipatzen diren egoerak, eta bere horretan iraun kontratua burutzerakoan.
B) Enpresarien aldi baterako batuketa.

Hainbat enpresari aldi baterako batuketan elkartuta aurkeztuz gero, parte hartzen duen enpresa bakoitzak bere erantzukizunpeko aitorpena aurkeztu beharko du baldintza orri honetako eranskinean jasotako ereduaren arabera. Era berean, kasu horretan, aldi baterako batuketa eratzeko konpromisoa aurkeztu beharko da, SPKLren 69.3 artikuluan eskatutakoaren arabera, eta batuketak, gutxienez, kontratuaren amaiera arteko iraupena izan beharko du. Konpromisoa

adierazteko idazkian honako hauek jaso beharko dira: batuketa osatzen dutenen izena eta gorabeherak, bakoitzak duen parte hartzea eta kontratuaren esleipendun izanez gero aldi baterako batuketa legez eratzeko konpromisoa. Dokumentu hori batuketa osatzen duten enpresa bakoitzaren ordezkariek sinatu beharko dute.

"B" GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA.- AUTOMATIKOKI BALORATUKO DIREN IRIZPIDEAK.

Gutun-azal horretan honako hauek sartuko dira:

a) Proposamen ekonomikoa, 2. eranskinari jarraiki.

Eskaintza ekonomikoarekin batera honakoak aurkeztu beharko dira:

Sastrakak kentzeko zerbitzua: Sastrakak kentzeari eta sastrakak kendu eta arekak garbitzeari dagozkion bi prezio unitarioak, indarrean egongo direnak kontratuak dirauen bitartean.

Kasuan, prezio horiek ez badira aurkezten, ulertu beharko da lizitatzaileak administrazioaren aurrekontukoak aurkezten dituela eta horiei ere portzentaje berean eragiten diela bere proposamen ekonomikoan egindako beherapenak.

14. BALDINTZA. Esleipen irizpideak.

Proposamenak baloratzeko eta eskaintza onena zehazteko ondorengo esleipen irizpideak jarraituko dira:

Formula bidez neurtzekoak:

PREZIOA. Gehienez ere 100 puntura arte.

Eskaintza ekonomikoaren puntuak sastrakak kentzeko zerbitzuari dagokio. Beraz, 100 puntuak sastrakak kentzeko zerbitzuari dagokio. Aplikatuko den formula honako hau da:

Sastrakak kentzeko zerbitzua

P= 100 x gutxieneko eskaintza/N eskaintza

Honako hauek izanik:

P= baloratzen ari garen lizitatzaileak lortutako puntuak

Gutxieneko eskaintza= onartutako eskaintza baxuenaren zenbatekoa.
N eskaintza= baloratzen ari garen eskaintza ekonomikoaren zenbatekoa

Eskaintza bakoitzaren puntuazioa ondorengo formula aplikatuz lortuko da.

Hasiera batean, ezohikotzat edo neurriz kanpokotzat joko da onartutako oinarrizko proposamen guztien beherapen portzentajeen batez besteko aritmetikoa gutxienez 15 unitatetan gainditzen

dituzten proposamen beherapenak, eta hori horrela jotzeko, batetik, aurrez informazioa eskatu beharko zaie ezohikotzat edo neurriz kanpokotzat jotako lizitatzaileei, eta, bestetik, dagokion zerbitzuaren aholkularitza teknikoa eskatu beharko da.

15. BALDINTZA. Kontratazio mahaia.

Eskaintzak baloratzeko eta dokumentazio administratiboa kalifikatzeko organo eskuduna Kontratazio Mahaia izango da, eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 326. artikuluan jasotakoaren arabera jardungo du.

Kontratazio mahaia honako hauek osatuko dute:
Mahaiburua: Udaleko Alkate-Udalburua.
Mahaikideak: udal arkitekto teknikoa.
Obra publikoetako udal ingeniari teknikoa.
Udal idazkari-kontuhartzailea.
Idazkaria: Udal idazkari-kontuhartzailea.

16. BALDINTZA. Dokumentazioa sailkatzea, proposamenak irekitzea eta dokumentazioa eskatzea.

Proposamenen gutun-azalak dagokion hurrenkerari jarraituz irekiko dira -2017ko SPKLren 145. artikuluak ezarritakoaren arabera-, baldintza agirian agertzen diren esleipen irizpideak baloratzeko metodoari jarraiki. Gutun-azalak kontratazio mahaiak irekiko ditu. Dena den, baldintza agirian ezarritako formulak aplikatuz soilik kuantifikatu daitezkeen irizpideen bidez ebaluatu beharreko eskaintza zatia duten gutun-azalak irekitzeko ekitaldia publikoa izango da.

Ekitaldi publikoa amaituta, mahaiak, bilkura berean, honako hauek egingo ditu:
1.- Baldintza orriko eskakizunak betetzen ez dituzten eskaintzak aurrez baztertu ondoren, onartutako eskaintzak ebaluatu eta sailkatzea.
2.- Puntuazio onena lortu duen lizitatzaileen aldeko esleipen proposamena egitea.
3.- Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean egiaztatzea enpresa behar bezala eratuta dagoela, proposamena sinatu duenak ahalorde askietsia duela eskaintza egiteko, kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa duela edo, hala balitz, dagokion sailkapena, eta ez duela kontratatzeko inolako debekurik.
4.- Puntuazio onena lortu duen enpresari errekerimendua egitea, elektronikoki, komunikazioa bidaltzen zaion egunetik kontatzen hasita 7 egun balioduneko epean ondorengo dokumentazioa aurkeztu dezan:

4.1.- Behin betiko bermea jarri izana egiaztatzen duen dokumentua.
4.2.- 2017ko SPKLren 75.2 artikuluak aipatzen duen konpromisoa aurkeztea, eta baita, 2017ko SPKLren 76.2 artikuluan jasotakoari jarraiki, kontratua egikaritzeko erabiltzera edo atxikitzera konprometitutako baliabideak benetan dituela egiaztatzeko dokumentazioa ere.

4.3.- Nortasun juridikoa egiaztatzeko dokumentuak:

a) Norbanako enpresariek NANaren kopia; eta pertsona juridikoa diren enpresariek, merkataritza erregistroan edo dagokionean behar bezala inskribaturik, enpresaren eratzea jasotzen den eskritura edo dokumentuak eta enpresa arautzen duten estatutuak.

b) Europar Batasuneko edo Europako Espazio Ekonomikoari buruzko Akordioa izenpetu duten estatu-kideetako enpresa ez Espainiarrek jarduteko duten gaitasuna egiaztatu behar dute. Horretarako, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen (APKL) Erregelamendu Orokorreko I. eranskinean adierazten diren erregistroetako batean inskribatuta daudela dioen ziurtagiria edo zinpeko deklarazioa aurkeztu beharko dute.

c) Atzerriko gainerako enpresariek beren jarduteko gaitasuna egiaztatu beharko dute dagokion Estatuko ordezkaritza diplomatiko espainiarrak emandako txosten bidez, non eta agerraraziko baita tokiko, lanbideko, merkataritzako edo antzeko Erregistroan inskribatuta ageri direla, edo, halakorik ezean, tokiko trafikoan ohikotasunez jarduten dutela, kontratuaren xede diren jardueren alorrean.

Halaber, dagokion espainiar ordezkaritza diplomatiko iraunkorraren txostena aurkeztu beharko dute, beren jatorriko Estatuak Munduko Merkataritza Antolakundeak kontratazio publikoari buruz hartutako erabakia sinatua duela esaten.

4.4.- Ordezkaritza egiaztatzeko dokumentuak. Proposamena lizitatzaileek sinatuta ez baldin badago, proposamena sinatzen duenari/dutenei emandako ahalordea izan beharko du ahalordedun(ar)en NANaren kopia batekin batera.

4.5.- Zerga betebeharrak egunean dituela egiaztatzeko agiria.

4.6.- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzeko agiria.

Espainian egoitza fiskalik ez duten atzerritarrek -pertsona fisikoak zein juridikoak izan eta Europar Batasuneko estatukide batekoak izan edo ez- beren jatorrizko herrialdeko agintari eskudun batek emandako ziurtagiria aurkeztu beharko dute dagozkien zerga betebeharrak beteta eta egunean dituztela egiaztatzeko. Era berean, ziurtagiria aurkeztu beharko dute —hori ere horretarako eskumena duen agintaritzak emana— beren jatorriko herrialdean eskatzen diren gizarte-betebeharrak egunean dituztela egiaztatzeko. Atal honetan aipatu den dokumentazio guztia azken hamabi hilabetekoa izan beharko da.

4.7.- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren alta, jardunaldi honetakoa, edo bestela, azkeneko erreziboa; zerga horren matrikulan ez duela bajarik eman dioen erantzukizunpeko deklarazio batekin osatua. Zerga ordaintzetik salbuetsita egonez gero, hori egiaztatzeko ziurtagiria, horretarako eskumena duen Administrazioak emandakoa.

4.8.- Kaudimena egiaztatzeko dokumentuak.

4.9.-. ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA —ustiapenekoa, patronalekoa, gurutzatua eta amaitutako lanena— eginda izatearen agiria. Eskoriatzako Udalak aseguratu gehigarriaren izaera izango du, baina hirugarrenen izaera galdu gabe.

1. OHARRA: **Kontratisten Erregistro Ofizialean** inskribatuta egonez gero, ez dira aurkeztu behar aurreko 4., eta 7. zenbakietako ataletan aipatu diren dokumentuak, eta eskatuko balira, sailkapenaren egiaztapena soilik, baldin eta indarrean dagoen ziurtagiriak baldintza horiek aipatzen dituzten datuak jasotzen baditu.

Kasu horretan, salbuetsitako dokumentazioaren ordez aurkeztu beharrekoa honako hau da:

a) Erregistroan inskribatuta egotearen ziurtagiria, indarrean egon beharko dena.

b) Enpresaren erantzukizunpeko aitorpena, ziurtagirian jasotako inguruabar horiek ez dutela aldaketarik izan jaso beharko duena adierazten.

2. OHARRA: Estatuko Lizitatzaile eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialaren inskripzio-ziurtagiriak 2017ko SPKLren 96. artikuluan ezarritako ondorioak izango ditu.

Jarritako epean ez badu zuzen betetzen errekerimendua, lizitatzaileak bere eskaintza bertan behera utzi duela ulertuko da, eta kasu horretan, eskaintzen sailkapena kontuan izanik, hurrengo lizitatzaileari eskatuko zaio dokumentazio hori aurkezteko.

17. BALDINTZA. Behin betiko bermea.

Eskaintza onena aurkeztu duen lizitatzaileak behin betiko bermea jarri beharko du kontratazio organoaren eskura. Berme hori lizitatzaileak, balio erantsiaren zerga kenduta, eskainitako azken prezioaren % 5a izango da. Bermea jarri dela egiaztatzeko zazpi egun balioduneko epea izango da komunikazioa bidaltzen denetik kontatzen hasita.

Dena den, behin betiko bermea 2017ko SPKLren 110. artikuluan aipatzen diren kontzeptuei erantzuteko izango da. Kontzeptu horien barruan dago kontratuaren helburu diren zerbitzuak oker betetzeagatik hirugarrenei sortutako kalte eta galerengatik kalte-ordaina ordaintzeko kontratistak duen betebeharra, 2017ko SPKLren 196. artikuluan jasoa, ez betetzea.
Behin betiko bermea 2017ko SPKLren 108.1 artikuluan ezarritako moduetako batean jarri beharko da.

Kontratistari eska dakizkion zigorrak edo kalte-ordainak behin betiko bermetik kendutakoan, kontratistak bermea berriz jarri edo handitu egin beharko du dagokion zenbatekoan. Horretarako 15 eguneko epea izango du bermetik dagokiona kentzen den egunetik kontatzen hasita, eta bermea berriz ez jartzea edo handitzea kontratua suntsiarazteko arrazoia izan daiteke.
Kontratuan egindako aldaketaren batengatik kontratuaren prezioa aldatuko balitz, bermea 15 eguneko epean doituko da, aldaketaren erabakia enpresariari jakinarazten zaion egunetik kontatzen hasita, aldaketaren ondorioz bermeak kontratuaren prezioarekin proportzioa gorde dezan. Doiketarik ez egitea kontratua suntsiarazteko arrazoia izan daiteke. Ondorio horietarako ez dira prezio aldaketatzat joko kontratuaren prezioen berrikuspena onartzetik eratorritakoak.

18. BALDINTZA. Behin betiko bermea itzultzea eta kitatzea.
Behin betiko bermea itzultzea eta kitatzea 2017ko SPKLren 111. artikuluan ezarritako moduan egingo da, betiere, obren bermea amaitu eta gero eta kontratuko betebeharrak egoki bete baldin badira.

19. BALDINTZA. Kontratua ez esleitzeko edo ez egiteko erabakia eta Administrazioak esleipen prozeduran atzera egitea.

2017ko SPKLren 152. artikuluan ezarritakoaren arabera, kontratua ez esleitzeko edo ez egiteko edo prozeduran atzera egiteko erabakia hartu dezake kontratazio organoak kontratua formalizatu aurretik.

Ez esleitzeko edo kontratua ez egiteko erabakia espedientean behar bezala justifikatutako interes publikoko arrazoiengatik hartu ahal izango da bakarrik.

Prozeduran atzera egiteko zuzendu ezin daitekeen arau-hausteren bat egon behar du kontratua prestatzeko edo esleipen-prozedura arautzeko arauetan, eta espedientean justifikatu beharko da atzera egiteko arrazoia.

20. BALDINTZA. Esleipena.

Kontratazio organoak eskaintza onena aurkeztu duen lizitatzaileari esleituko dio kontratua, 2017ko SPKLren 145. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2017ko SPKLren 158. artikuluaren arabera, behin betiko bermea eta eskatutako gainerako dokumentazioa aurkeztuta, eta derrigorrezkoa denean, kontuhartzailetzak gehienez ere 5 eguneko epean gastu konpromisoa fiskalizatuta, kontratua esleipendun bezala proposatutako lizitatzailearen alde esleituko da, eta behin esleituta, formalizatu egin beharko da.

Esleipen erabakia arrazoitua izan beharko da, lizitatzaileei jakinaraziko zaie eta 15 eguneko epean kontratatzailearen profilean argitaratu beharko da.

Jakinarazpenean eta argitarapenean beharrezko informazioa egon beharko da esleipen prozeduran interesdun izan direnek esleipen erabakiaren aurka behar beste oinarritutako errekurtsoa jartzeko; eta informazio horretan, edozein kasutan ere, honako hauek egon beharko dira:
a) Esleipen prozeduran baztertutako lizitatzaileei dagokienez, beraien eskaintza ez onartzeko arrazoiak, baliokidetasun ezaren erabakiaren edo lanek errendimendu baldintzak edo funtzionaltasun eskaerak ez betetzearen erabakiaren arrazoiak; eta lizitatzaileei, esleipendunari barne, emandako balorazioen banakapena.
b) Edozein modutan ere, esleipendunaren izena eta lizitaziora onartu izan diren gainerako lizitatzaileen eskaintzen aurrean bere eskaintza aukeratua izateko erabakigarriak izan diren proposamenaren ezaugarriak eta abantailak.

Jakinarazpena bitarteko elektroniko bidez egingo da, 2017ko SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarrian ezarritakoari jarraituz.

Inolaz ere ezingo da irabazlerik gabe utzi lizitazio bat baldintza agiriko irizpideen arabera onargarria den eskaintzaren edo proposamenen bat dagoen bitartean.

21. BALDINTZA. Kontratua burutzea eta kontratuaren forma.

Kontratazio organoak egindako esleipenaren bidez burutuko da kontratua, eta administrazio dokumentuan formalizatuko da 15 egun balioduneko epean esleipena jakinarazten den biharamunetik kontatzen hasita (2017ko SPKLren 153. artikulua).

Kontratua administrazio dokumentuan formalizatu beharko da, lizitazioko baldintzei estu lotu beharko dena, eta gainera, eskritura publikoan ere formalizatu ahal izango da kontratistak horrela eskatuz gero. Kasu horretan, eskritura publikoaren gastuak bere kargura izango dira.

Kontratua gehienez ere 15 egun balioduneko epean formalizatu beharko da, 2017ko SPKLren 151. artikuluak jasotako moduan lizitatzaileei esleipena jakinarazten zaien egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Esleipendunari egotzi dakizkion arrazoiengatik ez bada kontratua formalizatu epe barruan, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3a, BEZa gabe, eskatuko zaio zigor bezala, behin betiko bermetik, eratuta egongo balitz, kobratuko dena lehendabizi, 2017ko SPKLren 71. artikuluko 2. idatz-zatiko b letran ezarritakoaren kalterik gabe.

Kontratuaren formalizazioa, dagokion kontratuarekin batera, kontratua gauzatzen den egunetik gehienez ere 15 eguneko epean argitaratu beharko da kontratazio organoaren kontratatzailearen profilean (2017ko SPKLren 154.1 artikuluan). Formalizazio iragarkian SPKLren III. eranskinean jasotako informazioa agertu beharko da.

III- KONTRATUA EGIKARITZEA.

22. BALDINTZA. Administrazioaren eskumenak.

Kontratazio organoak, 2017ko SPKLren 190. eta 191. artikuluetan ezarritakoaren arabera, ondorengo eskumenak ditu:
a) Kontratua interpretatzea.
b) Kontratua betetzerakoan sor daitezkeen zalantzak erabakitzea.
c) Kontratua aldatzea interes publikoko arrazoiengatik.
d) Kontratua suntsiaraztea erabakitzea eta horren eraginak zehaztea.

23. BALDINTZA. Arriskua eta gorabeherak.

Kontratuaren arrisku eta gorabeheren erantzukizuna kontratistarena izango da, 2017ko SPKLren 197. artikuluan xedatutakoaren arabera, 2017ko SPKLren 239. artikuluan jasotako ezinbesteko kasuen kalterik gabe.

24. BALDINTZA. Kontratuaren arduraduna.

2017ko SPKLren 62. artikuluaren arabera, kontratu hau jarraitzeko eta egikaritze arrunterako unitatea ondorengoa da:

OBRA ETA ZERBITZUAK.
Fernando Eskoriatza plaza z/g. 20540 Eskoriatza.
E-mail: obraetazerbitzuak@eskoriatza.eus

25. BALDINTZA. Lan programa.

Kontratista esleipendunak lan programa bat aurkeztu beharko du, justifikatutako kasuetan izan ezik. Era berean, lan-programaren eranskin gisa, lizitatzaileak, lanak egiteko beharrezkotzat uste duen lantaldea edo plantillla kategoriaka zehaztu behar du; eta hor, zein den bere lantalde edo plantilla propioa ere azaldu behar du.

Esleipendunak aurkezten duen plangintza kontratuko dokumentua izango da ondorio guztietarako.

Kontratatuaren ardura duen unitateak lan-plangintzari buruzko ebazpena emango du hura aurkeztu ondorengo bost egunen barruan, edo, hala badagokio, aldaketak sarraraziko ditu edo baldintza batzuk betearaziko ditu, betiere kontratuaren baldintzen aurka ez badoaz.

26. BALDINTZA. Kontratistaren eskubideak eta betebeharrak.

Kontratua bertan jasotako baldintzen eta horiek interpretatzeko Udalak kontratistari emandako jarraibideen arabera egikarituko da.

Kontratistaren kontura izango dira gastuak eta zergak, iragarkiak, kontratua formalizatzearenak -eskritura publikoa eginez gero- eta baita kontratuaren helburu diren zerbitzuak zuzen egikaritu eta emateko beharrezko lizentzia eta baimenenak ere.

Era berean, enpresak kontratua betetzeko egin behar dituen gastu guztiak ere berak ordaindu beharko ditu: orokorrak, finantzarioak, asegurukoak, garraio eta bidaienak, materialak, instalazioak, bere kargurako langileen soldatak, egiaztatze eta entsegukoak, tasa eta zerga mota guztiak, BEZa, jarduera egiteagatik izan dezakeen zerga eta kontratuaren indarraldian kontratua betetzerakoan sor daitekeen beste edozein.

Lizitatzaileek egindako eskaintzetan zein esleipen proposamenetan kontzeptu ezberdinak zergapetzen dituzten edozein motako zergak barne daudela ulertuko da eragin guztietarako.

Hala ere, eta edozein modutan, eskaintza ekonomikoan partida berezi moduan azaldu beharko da Balio Erantsiaren gaineko Zergari (BEZari) dagokion zenbatekoa.

27. BALDINTZA. Kontratistaren izaera espezifikoko beste obligazio batzuk eta galda daitezkeen gastuak.

<u>Laneko Arriskuen Prebentzioa.</u>

Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 24. artikulua betez, kontratistak, kontratua formalizatzen denetik 15 egun naturaleko epean, prebentzioarekin lotutako ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko ditu:

- Prebentzioaren antolaketa-mota.
  - Prebentzio arloko solaskidea.
  - Kontratuaren helburu diren lanetan garatuko diren jardueren arriskuen ebaluazioa eta hartu beharreko prebentzio neurriak.
  - Eskoriatzako Udalarentzat lan egin behar duten langileen zerrenda izena, bi abizen eta NAN edo AIZ zenbakiarekin.
  - Langileen aitorpena, ondorengoei buruzko informazioa jaso izanarena:
    - Lantokiaren arriskuak.
    - Lantokiaren larrialdietarako plana.
    - Kontratatutako enpresentzako segurtasun eta osasun arau orokorrak.
  - Beraien jardueraren arrisku zehatzei buruz langileei emandako prestakuntza eta informazioaren egiaztapena.
  - Osasunaren zaintza derrigorrezkoa duten lanpostuen zerrenda eta lanpostu horietako langileen gaitasun ziurtagiria.

- Langileei babes ekipo indibidualak eman izanaren justifikantea.
- Erabiliko diren ekipoen edo makinen zerrenda eta horiekiko adostasun adierazpena.
- Makinak edo ekipoak erabiltzeko langileei emandako baimena.
- Prebentzio errekurtsoaren izena (lan honetan prebentzioko ardura duen pertsona), beharrezkoa balitz.
- Gizarte Segurantzari aurreko hilabetean ordaindu izanaren TC1 eta TC2 boletinak.
- Kontratazio berrietan, Gizarte Segurantzako alta partearen (TA-2) fotokopia.
- Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean izatearen ziurtagiria.
- Betebehar fiskalak egunean dituela jasotzen duen Ogasuneko ziurtagiria.
- Erantzukizun zibileko aseguruaren polizaren eta azken ordainagiriaren kopia.

Erantzukizun asegurua hirugarrenei eragindako kalteengatik.

Kontratistak aseguru kontratua izan beharko du kontratua egikaritzeko denbora osorako (luzapenak barne) eta dagokion berme eperako (luzapenak barne), eta aseguru horrek kontratu hau betetzeko jardunak eragin dezakeen arriskuak estali beharko ditu, gutxienez, 250.000 eurotan.

Edozein kasutan ere, frankiziari dagokion zenbatekoaren kalte-galerak esleipendunak berak jasango ditu kalte-galerok aseguru-poliza guztietan ezar daitezkeen mugak gainditzen dituzten guztietan zein aseguru-poliza horiek estaltzen ez dituzten ondasunetan eta arriskuetan.

Kontratistaren betebeharrak lan, Gizarte Segurantza eta laneko segurtasun eta osasun arloetan.
1.- Enpresa kontratistak lan, gizarte segurantza eta laneko segurtasun eta osasun arloan indarrean dauden legezko, erregelamenduzko eta hitzarmenezko xedapen guztiak bete beharko ditu.
2.- Enpresa kontratistak, kontratuaren egikaritzeak dirauen bitartean, aplikatzekoa zaion lan hitzarmenean jasotako soldata ordaindu beharko dio langile bakoitzari, dagokion kategoria profesionalaren arabera, eta ordaindu beharreko soldata inolaz ere ezingo da izan hitzarmenean jasotakoarena baino txikiagoa.
3.- Baldintza honetan jasotako betebeharrak betetzetik sortutako gastuak esleipendunaren kontura izango dira, eta kontratua egikaritzeko eskainitako prezioan sartuta egongo dira.
4.- Aurreko paragrafoetan ezarritako betebeharrak egikaritze baldintza berezi bezala ezartzen dira eta kontratua egikaritzerakoan egiaztatu beharko dira.

Hizkuntza betebeharrak kontratua egikaritzerakoan.

Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea. Araubide hori Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezartzen da eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta hori garatzen duten arauetan erregulatuta dago, besteak beste, EAEko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzko 179/2019 Dekretuan eta Eskoriatzako Udalaren Euskararen Erabilera Planean.

Eman beharreko zerbitzuaren ondorioz seinale, ohar, edo bestelako komunikaziorik jarri behar izanez gero, euskara hutsean idatziko dira, mezua ezaguna edo ulergarria denean. Bestela,

piktograma bidez egingo dira eta euskarazko azalpen mezua izango dute ondoan. Beste aukerarik ez dagoenean, elebitan egingo dira, euskarari lehentasuna emanez.

Era berean, kontratuaren helburua betetzeko elizateetako auzoalkateekin edo bestelako herritarrekin harremanetan jarri behar izanez gero, enpresa esleipendunak beharrezko neurriak hartu beharko ditu haien hizkuntza eskubideak bermatzeko, bai ahoz, bai idatziz.

Enpresa esleipendunak administrazioaren hizkuntza araudiaren arabera jokatuko du, kontratuaren xede diren jarduera guztietan; eta beraz, **enpresak Udalarekin** dituen ahozko zein idatzizko harremanak euskaraz izango dira.

Klausula honetan jasotako hizkuntza-baldintzek kontratuaren funtsezko obligazio izaera daukate Sektore Publikoko Kontratuen Legearen ondorioetarako, eta hortaz, kontratuaren gainerako baldintzak ez betetzeak dituen ondorio berdinak izango ditu: zigor sistema aplikatzea edo kontratua amaitzea.

EKIPOAK ETA PERTSONAL BALIABIDEAK

1.- Kontratistak ekipo eta pertsonal baliabide egokiekin egin beharko ditu lanak, lanen martxatik sortutako beharrei uneoro erantzunez.

2.- Kontratista behartuta dago baldintza agiri honetako gai diren lanak egiteko bere eskaintzan izendatutako zuzendari fakultatiboak eta gainerako langileak atxikitzera bertan zehaztutako dedikazioarekin. Ondorioz, kontratuak indarrean dirauen artean, bertara dedikazio osoz atxikitako langileak ezingo dira beste lan batean aritu. Era berean, kontratistak ezingo du bere eskaintzan izendatutako langileak ordezkatu kontratuaren ardura duen unitatearen berariazko baimenik gabe. Betebehar horrek funtsezko izaera du SPKLren 211. artikuluan ezarritako ondorioetarako. Horretarako, bere eskaintzan sartutako edozein langile teknikoren ordezkapena Udalak onartu beharko du izendatu gura den langile berriaren curriculuma, horrela eskatuz gero, aurkeztu eta gero.

MAKINERIA ETA BALIABIDE TEKNIKOAK

